

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alexandre Etcheberry

*Arhantsusi,
Nafarroa
Beherea
(1931-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Arhantsusi Larrondoan sortu zen. Aita bertakoa zen, eta ama aldiz Lartabale Zibitzekoa zuen, eta biak laborari zituen. Sei senideetarik bigarrena: gehiena neska zen, bortz mutikoak ondotik jin ziren. Aitamak bezala, Alexandre ere laboraria izana da, Larrondoan, baina badu gainera bertze zaletasunik: bertsolaritza. Hamazazpi urtetan hasi zen, eta geroztik Jutsiko Pierre Mercapide eta biak plazaz plaza, ogi-jotzez ogi-jotze ibiliak dirak, Oztibarren gaindi batez ere. Xalbador eta Mattinekin ere ibilia da bikotea. Ttipitik ezagutu du euskararen zapalketa: eskolan *buxeta* zuten, zigorra euskaraz mintzatzeagatik. Apezen artean urte bat Mauleko kolegioan egin zuen, zertifikata ateratzeko asmoz, baina, urtea gogorregia izan zenez, ikasketak bertan behera utzi eta etxean lanean hasi zen laborantzan. Berantago, Jutsiko Véronique Bidartekin ezkondu, eta lau seme-alaba izan zituzten (etxeko tradizioari fidel, gehiena neska eta ondoko guziak mutikoak). Bigarren Mundu Gerlaz (1939-1945) ere oroitzapenak kontatu dizkigu, zehaztasunez.

Zintak

ARH-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Madariaga, Ainize
- **Data:** 2013-10-25
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ARH-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Madariaga, Ainize
- **Data:** 2013-10-25
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Etcheberry, Alexandre | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com